

Egoibar - 1256. zenb.  
XXIX urtea - 2022-09-16



TOKIKOM  
BARREN

# Biba zuek!



## 10 Egun Kia.

Irailaren 15etik 26ra.

Kontsultatu eskaintzaren baldintzak eta betekizunak [www.kia.com](http://www.kia.com) helbidean.  
Eskaintza honek Penintsulako, Balear Liharteetako, Melillako eta Andorrako kontzesionario sare osorako balio du.

**KIA**

**NAIA CAR**

Apalategi auzoa,1  
Eibar. Gipuzkoa

[www.naiacar.com](http://www.naiacar.com)

☎️ 📞 943 70 70 33





matricúlate en **aek**  
euskara praktikoa  
hasta el 27 de septiembre

LA MEJOR COMPAÑIA PARA APRENDER

**EUSKARA**

IKASTEKO BIDELAGUN ONENA

Baldintzak beteta,  
matrikula erdi-prezioan eta bekak,  
udalari esker.



**Elgoibarko AEK euskaltegia**  
Gabriel Kurutzelaegi, 10  
(Toletxegain tren geltokiaren besteko aldean)  
**607 601 423** [elgoibar@aek.eus](mailto:elgoibar@aek.eus)

**Uzuri** ELGOIBAR - DEBA  
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar - 943 740 359  
[www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

*Betaurrekoak maite ditugu*

**2x1**  
betaurreko  
graduatuetan



(\*galdetu baldintzak)

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR - 943 744 112  
Publizitatea: 943 743 704  
[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)  
[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegi, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasola, Maialen Sanchez. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.885 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.

 [facebook.com/barrenaldizkaria](https://www.facebook.com/barrenaldizkaria)

 [twitter.com/barreneus](https://twitter.com/barreneus)

 [instagram.com/barrenaldizkaria](https://www.instagram.com/barrenaldizkaria)

Maialen Sanchez

Idazlea

## Itzali telebista



***“Jasotzen dugun informazioaren helburu bakarra gizateria izutzea dela dirudi”***

U da ezin hobe pasatu dugu! Azkenean aintzina moduko uda izan dugu, eta denok aurkitu dugu nola gozatu. Batzuek familiaren herrian bilatu dute babesa, beste batzuek berreskuratutako askatasunaz baliatuta bidai exotiko bat egin dute, beste batzuek erlojuaren menpe egon gabe bizi nahi izan dugu, ordutegirik eta betebeharririk gabe. Berdin dio zure atsedeen-egunetan egin duzuna, ziur nago errutinatik irten zarela, eta tarteka, eguneroko bizitza ahaztu duzula.

Deskonektatu nahi dugunean, egiteari uzten diogun lehenetariko gauza bat telebistaren aurrean esertzea da, agian gure ordutegiak aldatu egiten direlako, edo ez zaizkigulako axola munduko albisteak. Inguruan ditugun gertaerak ez direla existitzen ematen du, komunikabide batek ez badigu kontu horiekin 24 orduz burua berotzen. Gure opor egunetan gure lehentasuna gu gara, gure barnearekin bat egiten, deskonektatzea baino zerbait gehiago lortzen dugu, egun horietan zoriontsuago bizi gara. Telebistak aspaldi ez digu istorio alairik kontatzen, ez dago irribarre bat ateratzen duen edo gizaterian fedea itzultzen duen berririk. Badirudi kontatzen diguten guztia beldurrezko film baten gidoiaren parte dela eta jasotzen dugun informazioaren helburu bakarra gizateria izutzea dela. Pandemia bat edo bi pasatu ditugu, amaitzen ez den gerra bat, argiaren fakturarekin amesgaiztoak, lehortekak, suteak, horniduren murrizketak, hurrengo krisia, estralurtarren inbasioa... Ez duzue uste hainbeste gertaerarekin itotzen ari zaizkigula?

Eguzkitan igaro ditugun egunak eta txiringitoan pasatako arratsaldeak ohi baino azkarrago ahazten diren heinean, hainbeste informazioarekin ziurgabetasuna eta beldurra gure burura indartsu itzultzen dira, haurren eskolarako ezinbesteko itzulera bezala. Uste dut jendea informatuta edukitzea baino gehiago beldurtzea nahi dutela. Nicolás Maquiavelok esan zuen bezala “jendearen beldurra kontrolatzen duena, haien arimen jabe bihurtzen da”. Informazio-buletin bakoitzarekin nire teoria berresten dut. Itzali telebista, ez utzi zure burua manipulatzen; horrela, udan bezala, lasaiago bizitzea lortuko dugu.

*BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus*

-----

### **Pentsiodunak aurrera!**

Elgoibarko pentsiodunen mugimenduak irailaren 19an ekingo dio berriro dinamika mobilizatzaileari, Kalegoen plazan eguerdiko 12:00etan egingo den elkarretaratze-batzarrearekin. Udako etenaldiaren ondoren, pentsiodunen mugimenduak uste du protesta egiteko nahikoa arrazoi daudela, aurre egin behar dioten errealitate gordinak mobilizaziora behartzen baitu.

Asko dira batzarrean landu nahi dituzten gaiak. Inflazio neurrigabeak, abuztuan %10 gairitu zuenak, kezka handia sortzen du. Pentsioen KPIaren igoera aplikatzeko modu tranpatiak %3ko devaluazioa eragin zuen eta, beraz, prezioen igoerak kolektiboari eragingo dio, batez ere egoera okerreanean dauden pertsonen. EAJk eta PPK %0,25eko igoerak aplikatu zituzten aldirian, pentsiodunek erosteko ahalmenaren %6,5 galdu zuten, gutxi gorabehera. Garai hartan egindako borrokari esker, dinamika hori haustea lortu zen, baina Escriba ministroaren bitartez pentsioen aurkako beste eraso batek erosteko ahalmenaren %3 galtzea eragin du. Hau da, erosteko ahalmenaren %9,5eko galera metatzen da.

Zer esanik ez, pentsio txikienak dituzten pertsonen nola egingo dieten aurre eraso horiei guztiei. Pentsioak Europako Gutun Sozialak (1.080 €) ezarritako gutxiengoaren azpitik dituzten pertsonak, gehienak alargunak, bizitzako gorabeheren ondorioz erretiro adina iritsi aurretik enplegua galdu zuten pertsonak... miseriazko pentsioak dituzten pertsonak, alegia.

Osasuna, zaintzak eta, oro har, sistema publiko osoaren narriadura izango dira batzarrean landuko diren beste gai batzuk, hasi berri den ikasturtean landu beharreko gaiak baitira. Pentsionistak Aurrera!

**Gaurgeroa Elgoibar**

### **Eskerrik asko**

Maalako jai batzordetik pozik gaude aurtengo jaiak eman dutenarekin.

Pandemia osteko lehenengo jaiak izan dira, eta beldur pixka bat bagenuen ere, nabarmendu nahi dugu Gune Askeko egitarauan antolatutako

ekintzetan egon den parte-hartzea handia izan dela, eta oro har, giro onean ospatu direla ekintza guztiak. Beraz, zorionak denoi!

Nola ez, eskerrak eman nahi dizkiegu jaietan txosnagunean lan egin duen jende guztiari: egitaraua prestatzen, txosnetako txandak egiten, elektrizista eta iturgintza lanetan, janaria prestatzen, garbiketan jardun dutenei, dultzaineroei....

Eskerrik asko laguntzen aritu zareten gazte eta heldu guztiei, denon lankidetzarekin jaiak eta aldarrikapena uztartzea posible egin dugulako. Amaitzeko, nabarmendu nahi dugu istilurik gabe igaro ditugula jaiak, ez dugula eraso matxistarik jasan; jaiak modu askean ospatzea helburu dugunez, berri pozgarria da.

Eskerrik asko denoi, eta jarrai dezagun antolatzen, festan eta borrokan, eta gogoratu, hau ez da magia, herri lana da.

**Maalako Jai Batzordea**

### **Sanbartolomeak 2022: udal brigadaren balorazioa**

Bi urteko etenaren ondoren sanbartolomeak ospatu dira Elgoibarren eta udal brigadako langileok gogor lan egin behar izan dugu aurten ere.

Aurten gainera, sokamuturrerako hesi berria estreinatu dugu, horrek lan karga handiagoa eman digu, baina gustura gaude guztia ondo atera delako eta elgoibartarrek gozatu dutela ikusi dugulako.

Eskerrak eman nahi dizkiegu herritarrei, momentu oro beraien babesa eta esker ona agertu digutelako. Sokamuturrean lagundu ziguten auxiliarren lan ona ere ez genuke aipatu gabe utzi nahi.

Baino ez gaude erabat gustura, Udalarekin dugun gatazkak konpondu gabe jarraitzen duelako. Aurtengo jaietan 12 laguneko lantaldea ibili gara, eta horietako bat bera ere ez da langile finkoa; interinoak edo ordezkapenak egiten ari garenak gara guztiak. Bi arduradun (arduradunetako bat azken bi egunetan bakarrik etorri zen), eta beste guztiak, peoi kontratudunak. Peoi kontratuarekin, kategoria handiagoko lanak egiten ari gara, 2022ko urtarrilean Eibarko epaitegiak emandako epaiak dioten moduan.

Horregatik, Udalari esan nahi diogu borrokan jarraituko dugula, prekarietatearekin amaitu eta lan baldintza duin batzuen alde.

**Udal Brigada**

# EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra



## Bi data garrantzitsu:

### 1. ENTITATEEK izena emateko epea URRIAREN 14an amaituko da.

Bigarren edizioan 104 entitatek eman zuten izena Elgoibarren eta 419 *arigune* sortu ziren.

### 2. NORBANAKOEN izen-ematea IRAILAREN 28an zabalduko da.

Aurreko bi edizioetan bezala, bi rol izango ditugu aukeran: *belarriprest* eta *ahobizi*.

Lehen edizioan 1.804 lagunek eman zuten izena; bigarreanean, 1.499k.

---

EUSKARALDIA ariketan parte hartu nahi baduzu eta Elgoibarko EUSKARALDIA Taldearen laguntza behar baduzu:  
943 741 626 / [euskaraldia@elgoibar.eus](mailto:euskaraldia@elgoibar.eus)



## Azken urteotako jende gehien ibili da aurtengo uda denboraldian Mintxetako igerilekuetan

**D**omekan amaitu zen bainu denboraldia Mintxetako aire libreko igerilekuetan, eta arduradunek eman dituzten datuen arabera, 47.000 erabiltzaile izan dituzte aurten, 2013az geroztik kopuru altuena.

Batez beste eguneko 500 erabiltzaile inguru izan dituzte igerilekuek ekainaren 11tik irailaren 11ra bitartean, eta arduradunek uda denboraldiaren balorazio "oso positiboa" egin dute. "Aipatzeko moduko istripurik ez da izan, eta alde horretatik ere inoiz baino positiboagoa izan da", esan dute. Alabaina, erabiltzaile gutxi batzuren jarrera "inoiz baino txarragoa" izan dela ere aipatu dute, eta denonak diren instalazioak batzuetan edonola erabili dituztela agerian laga nahi izan dute. "Aldageletan eta komunetan grafitiak egin dituzte edo paretak paperez zikindu". Jaien azken egunean, abuztuaren 28an, herriko gazte kuadrilla batek igerilekuko tabernan izandako jarrera ere



salatzekoa izan zela gaineratu dute, "mozkor-mozkor eginda instalazioekiko eta erabiltzaileekiko errespetu falta nabarmena erakutsi zutelako". Horiez aparte, denboraldia "bikaina" izan dela ondorioztatu dute, eta elgoibartarrek zein bisitariak uda osoan "kalitatezkoak, seguruak eta irisgarriak diren instalakuntza erakargarriez gozatzeko aukera izan dute".

---

### Urriaren 6ra aurreratu dute 80 urtetik gorakoen bazkaria

Azaro amaieran izaten da Jubilatuen Astea eta horren barruan egin izan da orain arte 80 urtetik gorakoen bazkaria, baina aurten, urriaren 6ra aurreratzea erabaki dute arduradunek, eguna luzeagoa delako eta eguraldi hobea egiten duelako sasoi horretan. Bazkari horretan, bestalde, aurten urrezko ezteiak betetzen dituzten bikoteak omenduko dituzte.

Bazkaritarako zein urrezko ezteien omenaldirako izena emateko azken eguna irailaren 26a izango da. Izena, bulegoan bertan eman behar da, astelehen edo barikuetan, 11:00etatik 12:00etara, eta urrezko ezteiak betetzen direla ziurtatzeko Familia Liburua eraman beharko da. Jubilatuen Asteko gainerako ekitaldiak azaroko azken astean egingo dituzte.

---

### Mintxetako igerilekuetako berdegunea urte osoan zabaltzeko sinadura bilketa hasi dute

Elgoibarko guraso talde batek Mintxetako igerilekuen atzeko aldeko berdegunea urte osoan eta txorrotak udaberrian eta udazkenean zabalik edukitzeko eskaera egin dio Udalari, *Change.org* plataformaren bitartez. Beraien ustez berdegune hori "altxor" bat da elgoibartarrentzat. Honela azaldu dute: "Elgoibarko guraso talde bat gara eta pena handiz bizi dugu Mintxetako igerilekua ixtearekin batera igerilekuak atzealdera duen

zelaia eta ur-txorroten parkea erabili ezinda geratzea. Zelai hori Elgoibarko herriaren altxor bat iruditzen zaigu, herri erditik oso gertu gure herrian, oinez eta oinezkoen bidetik, iritsi gaitzekeen zelaigune bakarra da. Eta zorionez, orain arte, txakurren kaka gabe mantendu den zelaigune bakarra. Gure haurrek eta guk izugarri gozaten dugu gune horretan udan zehar". Eskaera hori sinatzeko eskatu diete herritarrei.

## Mausitxako gazta hirugarren, Bergarako San Martin azokan



**B**ergarako San Martin jaietako azokaren barruan, gazta lehiaketa egin zuten joan zen irailaren 10ean, Bergaran. Hogei gaztagile inguru lehiatu ziren eta hirugarren gaztarik onenaren saria jaso zuen Mausitxakoak. SC Kortaria izan zen irabazlea. Infernuko Gasna izeneko gazta egiten du Irati Usandizaga gaztagile oñatiarrak Lekarozen (Nafarroa), eta berak eskuratu ditu lehen postuak Elgoibarko sanbartolomeetan zein Bergaran. Iaz, Mausitxa izan zen Bergarako txapeliduna.

Uda honetan txapelketa gehiagotan ere lehiatu da Mausitxa, eta Azpeitian egin zuten Gazta Lehiaketan bera izan zen irabazle. Garaipen horrekin Mausitxak ziurtatuta dauka Gabon Zaharretako Ferian Elgoibarren egiten duten urteko gaztarik onena aukeratzeko lehiaketan parte hartzea.

## Deba ibaia garbituko dute Baso Biziak taldekoek hilaren 24an



Baso Biziak taldeko kideek Deba ibaia garbituko dute irailaren 24an, eta ekimenean parte hartzeko deia egin diete herritarrei. Ibai eta ingurumen bateratua antolatu dute egun horretarako eta inguruko herrietan ere egingo dituzte garbiketak, besteak beste, Eibarren, Soraluzen, Azpeitia-Azkoitian eta Elorrio-Atxondon.

Usuko parkean bilduko dira 9:30ean, eta Usua ingurutik Maltzaga alderako zatia garbituko dute. Agertzen den jendearen arabera osatuko dituzte taldeak, eta talde bakoitzari ibai tarte bat egokituko diote.

Antolatzaileek eskatu dute ibaian sartzeko oinetako egokiak eramateko.

Izena emateko edo informazio gehiago eskatzeko [info@elgoibarkobasobiziak.org](mailto:info@elgoibarkobasobiziak.org) helbidera idatzi edo 667 678 003 telefonora deitu daiteke.

## 36ko Gerran Elgoibarko frontean hildako soldaduak gogoratuko dituzte domekan Zirardamendin

Elgoibarko Udalak 36ko Gerran Zirardamendi frontean hildako soldaduak gogoratuko ditu domekan, Zirardamendin. Omenaldia 11:00etan hasiko da Aiastiako frontoian, eta handik joango dira Zirardamendi ingurura. 2013an hasi zen Udala omenaldi

hau egiten, "euskal soldadu gazte haien sakrifizioa gogorarazi eta memoria historikoa bizikidetzarako eta adiskidetzarako bide gisa defendatzeko beharra azpimarratzeko". Herritarrei dei egin diete Udaletik domekako ekitaldian parte hartzera.

## Astelehenean hasiko dute Santa Ana kaleko murala erabakitzeko parte-hartze prozesua

Santa Ana kale amaieran dagoen etxean horma-irudia marraztea erabaki du Udalak, eta irudi hori aukeratzeko parte-hartze prozesuari ekingo diote astelehenean. Herritarrek hilaren 30era arte izango dute botoa emateko aukera, eta boto gehien dituen marrazkia irudikatuko dute ondoren horman.

Sortwo, Pablo Astrain, Maialen Arocena eta Jabier Rodriguez artista euskaldunek egin dituzte irudi proposamenak eta bakoitzak bi lan aurkeztu ditu, beraz, herritarrek zortzi irudiren artean aukeratu beharko dute gustukoena.

Elgoibarren jaio, bizi, ikasi edo lana egiten duten bertako zein kanpoko pertsonak izango dute botoa emateko aukera, baina ezinbestean 16 urte beteta eduki behar dira. Udaletxean, liburutegian, kiroldegian eta Aita Agirren bozkatu ahal izango da, eta baita [elgoibar.eus](http://elgoibar.eus) webgunean jarriko duten formularioa beteta.



### Jorge Arevalo Lanbide Heziketako sailburuordearen hitzaldia eguaztenean



Elgoibarko EAJ-k antolatuta, Jorge Arevalo Lanbide Heziketako sailburuordeak hitzaldia emango du irailaren 21ean, Elgoibarren. Besteak beste, planifikazioaz eta Lanbide Heziketaren arloko ildoak markatzeaz arduratzen da Arevaloren Saila, eta Lanbide Heziketarako euskal plana garatzen dute, bizitza osoko ikaskuntzarako ekintzak diseinatuz. Elgoibarren Lanbide Heziketako bi ikastetxe daude, eta Lanbide Heziketak lan munduari begira eskaintzen dituen aukerez mintzatuko da, besteak beste.

### Zubigazte programa hasiko dute gaur Mendaroko Gaztelekuan

Mendaroko Gaztelekuak Zubigazte programa jarriko du martxan gaurtik aurrera. Ludoteka eta Gaztelekuaren erabilera tartean dauden gazteentzako eskaintza erakargarriagoa egitea du helburu programak, gazteek eurek proposatutako ekintzak antolatuz. Hilean bi saio egingo dituzte Gaztelekuan bertan, 17:00etatik 18:00etara:

Iraila (16 eta 23), urria (14 eta 21), azaroa (11 eta 18), abendua (9 eta 16), urtarrila (13 eta 20), otsaila (10 eta 17), martxoa (10 eta 17), apirila (14 eta 21), maiatza (12 eta 19), eta ekaina (9 eta 16). Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailako ikasleei dago zuzendua.



# KIROLA ETA HIZKUNTZA, HERRI-NORTASUN BIZI BATERAKO OINARRIAK

✍ Aina Argoitia / 🗣 Ainhoa Andonegi - Imanol Larrañaga



**Z**ein da Elgoibarren kirolak duen dimentsioa eta eragina? Zergatik da garrantzitsua kirola euskaraz egitea? Kirola ere herrigintza al da? Zer ematen dio kirolak Elgoibarren ongizateari eta herrigintzari oro har?. Galdera horiei eta antzeko beste batzuei erantzun zieten joan zen irailaren 3an, Elgoibarren, Gotzon Garate euskaltzalearen omenez antolatutako *Euskara ala ezkara kirolean?* jardunaldira batu ziren hizkuntzalari eta kirol munduko teknikariek. Elgoibarko Izarrak eta Udaleko Euskara eta Kirola sailek antolatu zuten jardunaldia, IMHren eta DanobatGroupen laguntzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren babesarekin. Normalean urrian egin izan den zikloa irailera aurreratu dute aurten, ikasturte -edo denboraldi- hasierara. Bi jai-egun ofizialeko astea hasi aurreko zapatarako jarri zuten eguna, baina hala ere, 80 bat lagun elkartu ziren IMHn, kirola eta euskara binomioaz gogoeta egiteko. Han entzundakoen laburpen bat jaso dugu hemen. Kronika hauek zein emanaldi guztien bideoak aurki zintzilikatuko ditugu [barren.eus](http://barren.eus) eta [euskaralaezkara.eus](http://euskaralaezkara.eus) atarietan.

Kirola eta euskara uztarri berean batzeko ahalegina izan da aurtengoa. Ane Beitia alkateak,

Iñaki Konde Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneko presidenteak eta Estibalitz Alkorta Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendariak egin zituzten atariko aurkezpenak, eta lau hitzaldi, bi esperientzia eta mahai-inguru bat izan zituzten bertaratutakoek entzuteko eta hausnartzeko. Kirola eta euskara kohesio sozial sendo eta herri nortasun bizi baterako oinarri egokiak direla dioen premisatik jardun ziren guztiak, antolatzaileek formulatutako galdera asko eta askotarikoei erantzunez.

Bukaerarako sorpresa ere gorde zuten antolatzaileek: *Biba zuek!* bideoa proiektuatu zuten, Elgoibarren kirola sustatzeko lan boluntarioan diharduten sei emakumeren lekukotzak jasotzen dituen: Virginia Santamarta (Morkaiko Mendizale Elkarte), Marta Diez (C.D. Elgoibar), Marga Zapata (Urnobitza Motokluba), Mertxe Ariznabarreta (Lagunak pilota taldea), Pili Pedrosa (Sanlo eskubaloi kluba) eta Mertxe Martinez (Mintxeta Atletismo Taldea). Seirak igoarazi zituzten oholtzara, baina errekonozimendua Elgoibarren kirolaren alde jardun duten emakume guztiei eskainitakoa zela zehaztu zuten antolatzaileek.

# EUSKARA GEHIAGO EGITEN DA KIROL-EREMUAN KALEAN BAINO



**Elgoibar euskaldunago egin nahi bada, merezi du kirolean arreta jartzeak. Batetik, jendetza handia dabilelako kirolean, eta bestetik, euskararen erabilerarako lagungarriak gerta daitezkeen baldintzak topa ditzaketelako gazteek kirol-eremuan. Lanerako oinarri bat badago, gainera. Izan ere, 2017an Soziolinguistika Klusterrak Udalaren enkarguz egindako neurketak eta aurten Kirol Patronatuak, Udalak eta Elgoibarko Izarrak elkarrekin egindako galdeketa batek erakutsi dute kirol-eremuan kalean baino euskara gehiago egiten dela.**

**E**uskararen erretratua egin zuen Kristina Zuatzubizkar Euskara teknikariak *Euskara ala ezkara kirolean?* jardunaldian. Bi informazio-iturri baliatu zituen: batetik, 2017an Udalaren enkarguz Soziolinguistika Klusterrak egindako neurketa, eta bestetik, Elgoibarko Izarraren, Kirol Patronatuaren eta Udalaren ekimenez aurten herriko kirol-elkarrekin egin duten galdeketa [18 entitatek erantzun dute galdeketa]. Eta bietako emaitzak eskutan

hartuta, bi ondorio nagusi atera dituzte: kirol-eremuan kalean baino euskara gehiago egiten dela eta emakumezkoek gizonezkoek baino gehiago egiten dutela euskaraz.

4-5 urtean behin egiten dute Elgoibarren kale-neurketa, Udalak eskatuta. 2017koan, baina, kalean erabilitako euskaraz gain, hiru kirol esparrutako erabilera ere neurtu zuten: eskola kirola, futbola eta eskubaloia, benjaminetan (8-9 urte), alebinetan (10-11 urte) eta infantiletan (12-16 urte). Eta emaitza orokorrak eman zuen, kalean, euskararen erabilera %35,9koa dela. Jaitsiera bat adierazten du horrek azkeneko neurketetatik, %40ren bueltako erabilera-datua eman baitzuen orain hurrengo Elgoibarren egin zuten neurketak. Sexuari erreparatuta, aldea handia da: emakumeen datua gerturatzen da azkeneko neurketako datu orokorrera (%39), baina gizonezkoena dezentez da apalagoa (%31,6). Adinaren arabera, berriz, haurrak dira euskara gehien egiten dutenak -%55-, eta gazteek (15-24 urte) eta adinekoek (65etik gora) egiten dute gutxien, %25,1 eta %24,5

**2017an Soziolinguista Klusterrak egindako neurketaren arabera, Elgoibarren, %35,9koa da euskararen erabilera. Kirolean, berriz, %56,6koa da datua, eta eskola kirolean, %76,7koa**

**Euskararen ezagutza-maila altuena 34 urtez beherakoek dute (%81). Kirol eremuan, euskararen ezagutza, batez beste, %78tik gorakoa da datu aitortuen arabera, eta oso gutxi dira ulertzen ez dutenak**

**Duela hamabi urtetik urratsak egin dira euskararen gaian kirol-eremuan: kanpo-komunikazioan 27 puntu egin da gora; ahozko erabileran, 23, eta errotulazioan, 20. Erabileran, ordea, 4 puntu baino ez**

hurrenez hurren. Datu kezkarriak badira, beraz, eta bat nabarmentzekotan, gazteena. Beti dago, baina, esperantzarako arrazoirik.

Neurketa berean, eskubaloian, futbolearen eta eskola-kirolean egiten den euskara neurtu zuten, jakinik gazte gehienak hor dabiltzala. Kirolean, euskararen erabilera-datua %56,6koa da, baina eskola kirolean hogeitun puntu da altuagoa: %76,7. Rolak ere aztertu zituzten: jokalariek, entrenatzaileak eta partidetak ikusleak (haurrak eta nagusiak), eta neurketak antzeko datua eman zuen jokalaria eta entrenatzaileak egiten duten erabileraz: %64 bueltakoa. Harmailetan, baina, zelaian baino askoz euskara gutxiago entzuten da: %37,6 haurrek, eta %32,7, helduek. Sexuari erreparatuta, aipagarria da datua: kaleko erabileran aldea bederatzita puntukoa bada,

kirolean, aldea dezentez da handiagoa: hamar emakumetik zazpi egiten dute euskaraz (%71), eta gizonek, berriz, hamarretik lauk (%47,6).

2017ko datu horiek eguneratu aldera, aurtun, galdetegi bana pasatu diete Udalak, Elgoibarko Izarrak eta Kirol Patronatuak herriko elkartei eta argigarriak dira datuak. 2016ko eroldaren arabera, herritarren %62 euskalduna da Elgoibarren (hirutik bi), eta %15 ia eudkaldunak dira, hau da, ulertzen dute euskara, baina zailtasunak dituzte hitz egitean. Euskararen ezagutza maila altuena 34 urtez beherakoek dute, adin-tarte horretan %81 euskaldunak direlako. Galdetegiko emaitzetara etorrita, kirol-eremuan euskararen ezagutza, batez beste, %78tik gorakoa da, datu aitortuen arabera, eta oso gutxi dira euskara ulertzen ez dutenak.

Bulegoetara joaten zaizkienei eta telefonoz deitzen dietenei elkarteetan lehen hitza zein hizkuntzatan egiten dieten ere aztertu zuten, bai eta elkarteetako paisaia linguistikoa ere. Datu aitortuen arabera, ahozko harrera euskaraz edo euskaraz nagusiki egiten dutenak elkartearen %63,6 dira. Errotuloetan, karteletan eta eskuorrietan, berriz, esan daiteke ziurtatuta dagoela euskara (%94,8), baina whatsapp bidez egiten duten kanpo komunikazioetan, adibidez, datu hori askoz da apalagoa: %52,7. Barne komunikazioetan (egoitzako ohar, arau, eta bazkide eta gurasoei bidaltzen zaizkien gutunetan) %85ekoa da euskarazko erabilera. Bileretan zenbat euskara egiten duten ere galdetu zuten elkarteetan, eta haiek aitortu zuten jokalaria-kirolarien artean erabilera %71,4koa dela batez beste, baina zuzendaritza-bileretan ez dela %48ra iristen. Ekitaldi, entrenamendu eta partidetan ere, jokalariek euskara gehiago egiten dute euren artean entrenatzaileek laguntzaileekin egiten dutena baino.

Datuok duela hamabi urte Udalak kirol-eremuan egindako beste neurketa bateko emaitzekin alderatu zituen Zuatzubizkarrek, eta ondorioztatu zuen: Kanpo-komunikazioan 27 puntu hobetu dela; ahozko-harreran, 23, eta errotulazio eta karteldegian 20 puntu. Erabileran ere pausoak eman dira, baina ez horren handiak, lau puntu egin baita bakarrik gora.



# KIROLA ELGOIBARREN

Elgoibarren kirolaren praktika oso zabaldua dagoen zerbait da, eta lagun ugarik eusten diote zutabe horri. Hain justu ere, eragile guzti horiek egiten duten lanaren balioa nabarmendu zuen Elgoibarko Kirol Patronatuko zuzendari Ramon Mujikak bere hitzartzean. Baita urteetan Udalak kirolarekiko "erakutsitako sentsibilitatea" ere. Hamazazpi milioi euroren bueltakoa da Udalaren aurrekontua. Hiru sailetan banatzen da: Lurraldea (6.892.296 euro), Antolakuntza (4.539.980) eta Herritartasuna (6.269.521) eta azken horren barruan dago kirolerako partida (1.405.000 euro), Ongizaterako poltsaren ostean, handiena (1.747.000 euro).



**A**riketa fisikoa, jarduera fisikoa eta kirola kontzeptuak definituz hasi zuen Elgoibarko Kirol Patronatuko zuzendari Ramon Mujikak bere tarte *'Euskara ala ezkara kirolean?'* jardunaldian. "Energia kontsumoa duen edozein mugimendu egiteari esaten diogu ariketa fisikoa egitea; helburu bat duen ariketa fisikoa da jarduera fisikoa, eta instituzionalizaturik eta lehia moduan kodifikatutako egoera motorren multzoa, kirola". Elgoibarko datuak emateko ezinbesteko iritziz hori argitzeari, "kirolaz ari garenean zeri buruz ari garen jakitzeko". Eta datuak, dozenaka datu, aletu zituen gero, kirolari buruz Kirolaren Europako III. Kartak ematen duen definizioan barnebiltzen diren emozioak alde batera lagata. Hiru esparru bereiztu zituen Mujikak: eskola kirola, kirol federatua eta aisialdiko kirola, eta hala eman zituen datuak ere.

## ESKOLA KIROLA

Eskola kirolean, iazko ikasturtean, 354 umek eman zuten izena Elgoibarren, LH1etik LH6ra matrikulatutakoaren %47k (%70,1 mutilak eta %29,9 neskek). Beste modu batera esanda, adin tarte horretan bitik batek parte hartzen du eskola

kirolean. Pandemiak etena ekarri zuen eskola kirolean 2020-21 ikasturtean, baina azkeneko datuekin alderatuta [2018-2019], iaz, mutilen parte-hartzea hamar bat puntuan handitu zen, eta neskena, proportzio berean jaitsi. Datu horrek lehiakortasuna ulertzeko moduarekin lotura izan zezakeen ustea bazuten ikastetxeetan eta kirol ereduaren inguruko gogoeta egiteko baliatu zuten pandemiako etenaldia. Kirolaren bidez haurrak balio hezitzaileetan hezi nahi dituzte eta jakin nahi dute lehiak zer leku behar duen. Kirol Management enpresaren gidaritzapean egingo dute aurrean eskola kirolaren diagnostia eragile diren guztiek elkarlanean, datorren ikasturtean jarri nahi dutelako indarrean programa berria.

**LH1etik LH6ra arteko 354 umek eman zuten izena iaz eskola kirolean, adin tarte horretan matrikulatutakoaren %47k: %70,1 mutilak, eta %29,9, neskek**

## KIROL FEDERATUA

Euskal Herriko Kirolaren Behatokiak dio 10.000-15.000 biztanleko herrietan batez beste hamalau kirol elkarte izaten direla. Elgoibarren, baina, 22 daude gaur [C.D. Elgoibar da zaharrena]. 90eko hamarkadan sortutakoak dira horietako hamar bat, eta horrek badu bere arrazoia, Mujikaren esanetan. "1988an Olaizaga kiroldegia sortu zuten; 1992an Bartzelonako Olinpiar Jokoak jokatu ziren eta horrek eragina izan zuen batez ere teknikarien profesionalizazioan, eta 1993an, Mintxetako kirolgunea eraiki zuten. Kirol elkarteen loraldian eragina izan zuten horiek". Datuetara itzulita, 2021-22 ikasturtean, 1.457 lagun zeuden federatuta (horietatik %33 emakumezkoak eta %67 gizonezkoak). Beste modu batera esanda, Elgoibarren kirolarien %12,6 federatuta daude, Euskadiko batez bestekoaren halako bi, eta sexuari erreparatuta, federatuen %8,4 gizonezkoak dira, eta %4,2, emakumezkoak. Herriko klubak aurrekontua, berriz, 331.396 eurokoa da guztira, eta federatu bakoitzeko gastua -federatu bakoitzak suposatzen duena- 227,45 eurokoa. "Datu horiek argi erakusten dute kirol elkarteek zenbat jende eta zenbat diru mugitzen duten, eta balio dute merezi duen balioa emateko elkarteetan egiten duten lanari", esan zuen horren harira Mujikak. "Elgoibarko Kirol Patronatuak 1.500.000 euroko aurrekontua du eta heren bat mugitzen dute kirol elkarteek".

## AISIALDIKO KIROLA

Elgoibarko Kirol Patronatuak antolatzen dituen ikastaroetan izena emandakoak edota Udalaren lokaletan kirola egiten dutenak hartu zituen aintzat aisialdiko kirola egiten dutenak aipatzean. Patronatuak 4.216 abonatu zituen iazko ikasturtean, herritarren %36 (%52 gizonak eta %48 emakumeak), eta kopuru hori ere Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko batez bestekoa baino bost puntu handiagoa da. Era berean, hilero 1.160 lagun ari dira patronatuak antolatutako ikastaroetan (Elgoibartarren %10).

**Elgoibarren kirolarien %12,6 federatuta daude - 1.457-, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko batez bestekoaren halako bi: %8,4 gizonezkoak eta %4,2 andrazkoak**

Kirolean egiten den lanari balioa ematea zein garrantzitsua den azpimarratu zuen Mujikak, besteak beste "kirolak balio duelako bat egiteko, gizartea kohesionatzeko". Horregatik beharrezkoa iritzi zion eskola kirolean egingo duten moduan kirol federatuan ere gogoeta egiteari, gizartean ematen ari diren aldaketetara egokitzeko. "Klub askotan, zailtasunak dituzte erreleboak bilatzeko. Komeniko litzateke zerbait egitea baliabide batzuk sortzeko jendea animatu dadin elkarteetan parte hartuz". Era berean, eta eskola kirolean hasitako prozesuaz esan zuen oso inportantea irizten diola lehiakortasunaren kontu hori nola landu profesionalen esku uzteari, uste baitu eredu aldaketa ezin dela izan oso-osoan kiroleatik ariketa fisikora pasatzea. "Kirolak ere bere lekua izan behar du eskola kirolean eta kirol-elkarteekin batera joan behar da". Batera. Elkarrekin. Kirol elkarteek, ikastetxeak, guraso elkarteak, Udalak eta gainerako eragileek elkarrekin lan egiten jarraitzea derrigorra dela uste du Mujikak.



# KIROL KLUBAK, EUSKARAREN BABESGUNE AHAZTUAK



**Hizkuntza sustatzeko ahaleginean, kirolean ez dela behar beste arreta jarri uste du Jone Miren Hernandezek, askotan bikote ezinezkotzat agertu izan delako. EHUKo Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Saileko irakaslea da Hernandez, eta haren ustez, kirolak arreta "berezia eta berezitua" merezi ditu, gaur egungo gizartearen ez ezik, gazteen bizitzan eta bizimoduan ere aparteko tokia duelako.**

**B**i ikerketa-proiekturen ondorio nagusiak baletu zituen Jone Miren Hernandezek, kirola euskaraz egiteak zer garrantzia duen azaltzeko. Batetik, *D ereduko kirola* ikerketa-proiektua. Proiektu horretan 10 eta 16 urte arteko haur eta gazteek aisialdiaren esparruan, zehazki kirolean, euren bizitza euskaraz egiteko zer nolako aukerak dituzten aztertu zuten hainbat eragilek elkarlanean. Kirol federatuaren esparruan jarri zuten fokua, eta "euskaraz aritzeari garrantzia ematen dioten" bost klub behatu zituzten. Ikerketak berretsi zuen kirol federatuaren esparruan haur eta gazteek euskara gehiago erabiltzeko bideak zabaldu nahi badira, komeni dela eskolak egindako lanari jarraipena ematea, baina, beti ere, eskolan erabiltzen diren hainbat irizpide kirol esparruaren ezaugarrietara egokituta. Izan ere, kirola eta eskola "bi unibertso diferente" dira. "Badute lotura

eta elkarreragina bien artean, baina eskolan funtzionatu duenak ez du zertan beste barik kirolean funtzionatu, antolaketari, egiturari eta zereginari erreparatuta bi mundu direlako, eta zer esanik ez, gazteen ikuspuntutik begiratuta. Asko karikarizatuta esango dugu eskola kartzela dela eta kirola, aldiz, gozarena"

Eta horri lotuta, bigarren ondorio nagusi bat ere atera zuten ikerketatik: kirolak izugarriko potentzialitatea duela euskara sustatzeko orduan; kirolean ia dena dela posible. "Johan Huizinga antropologoak zioen jolasaren bitartez errutina eta egunerokotasunetik aldentzen garela, eta beste mundu batean murgildu, zeinetan dena den posible. Argi izan behar dugu: kirola ez da eskola, ez da familia, ez da kuadrilla... kirola, kirola da". Horregatik uste du kirolaren berezko esparrua ikertu behar dela, hizkuntz eremura jauzi egiteko: "Normalean, euskara teknikaria joan ohi da klub biziaren antolatzaera, baina kontrako ariketa egin behar dugu: klub biziaren egunerokoa ezagutu eta onartu kirola esparru berezko bat dela".

Kirol klubak euskarentzako gune babestu bilakatzeko beharra ikusten du Hernandezek, gazteen eskolaz kanpoko aisialdian euskarak presentzia handiagoa har dezan, eta gune



## "Euskararen erabilerarako lagungarriak gerta daitezkeen baldintzak topatu ditzakete gazteek klubetan: gustuko jarduna, giro gertukoa, elkarlana, adiskidetasuna, ikasteko toki bat..."

babestu hori sortzeko, funtsezko ikusten du kirolak "oso bereak dituen ezaugarriak" kontuan hartzea esku-hartzeak diseinatzean. Horretarako, behar-beharrezko ikusten du kirol eremuan parte hartzen duten protagonistekin edukia kontrastatzea.

### KIROL KLUBAK, EUSKARAREN BABESGUNE

2016an hasi eta 2018an amaitu zuten ikerketa proiektu hari *Euskara kirolkide* egitasmoarekin eman zioten jarraipena, 2020an. Helburu nagusi bat zuen proiektuak: kirol kluba euskararen babesgune gisa definitzea, jakin bazekitelako euskararen erabilera handitzeko, hizkuntza ezagutzeaz gain, testuinguruarekin lotutako bigarren mailako baldintzak ere eman behar zirela. Eta ekin zioten euskararentzako kirol aisialdi babestua zertan datzan zehazteari, beti ere kirol klubean ikuspegitik. Sei klubetan egin zuten landa-lana, hizkuntz ideologian, praktikan eta bizipenetan jarrita arreta: Bera Bera RT, Gaztedi Rugby Taldea, Gernika Rugby Taldea, Judizmendi Igeriketa Kluba, S.D. Amorebieta eta UDA Aretxabaleta. Batez ere zuzendaritza-taldekideak eta langile zein boluntarioak elkarrizketatu zituzten, baina entrenamenduetan, partidetan... ere izan ziren, eta ikusi zuten euskararen erabilerarako lagungarriak gerta daitezkeen baldintzak topatu ditzaketela gazteek klubetan: gustuko jarduna, giro gertukoa, elkarlana, lankidetzak, adiskidetasuna, errespetua, ikasteko toki bat... Era berean, hizkuntzak ere taldea egiten lagundu dezakeela berretsi zuten, taldea indartzeko eragilea izan daitekeela.

Ikerketatik ondorioztatu zuten kirol-eremuan euskarak potentzialitate handia duela, arrazoi ezberdinengatik:

klubean errealitatean presentzia handia duelako; klubean historian, bai eta orainan ere, lekua duelako; kezka eta interesa pizten dituelako; klubean hobekuntza-prozesuetan euskara txertatzeko ahaleginak egiten ari direlako, eta nerabe eta gazte euskaldunekin lanean ari direlako jada. Baina ahulguneak ere identifikatu zituzten; nagusia: euskararen alde egiteko borondatea egon arren, zailtasunak dituztela praktikan. Batetik, euskararen inguruan ezarritako arauak gutxi dira; ezagutza-hutsuneak daude langileen eta entrenatzaileen artean, ohiturarik ez erabiltzeko, askotan borondatearen (edota pertsona jakinen jarreraren) baitan geratzen delako euskaraz egitea...

Nolanahi ere, Hernandezek dio "harrituta" gelditu zirela klubetan egiten duten lanarekin, dagoen inplikazioarekin eta etorkizunari lotuta duten kezkekin. "Klub bakoitzak egiten du eta egingo du ahal duena, duenarekin; lagundu egin behar diegu". Proposamena ere egin zuten: "Egin erraz, egin praktiko, egin sinple. Zerrendatu praktika guztiak eta ikusi zein praktikan egin dezakegun gehiago euskararen alde. Sortu heldulekuak euskararentzat: giroa, karteldegia..." Egin hori, klubean izena ematen dutenak sartu bezain laster jabe daitezkeen non dauden. Bilatu adostasuna eta zehaztu helburuak, eta transmititu kirolariei egiten ari direnak ez duela zerikusirik eskolarekin; ez zaiela notarik jarriko; transmititu taldean ikasteko daudela, bakoitzak dakienarekin. Azken batean, euskararekin izan dezaketen harremana berdifinitzeko aukera badagoela ikusarazi.



# KIROLA EUSKALDUNTZEKO BI ADIBIDE



"Kirola eta hizkuntza, horra bi gauza luza dezaketenak herriaren hatsa", zioen Fernando Aire 'Xalbador' poeta eta bertsolari handiak. Ondotxo dakite hori Tuteran. Gazte talde batek Union Tuterana kluba sortu du, kirolaren bidez -futbolaren bidez- euskara eta aniztasunari lotutako balio errespetuzkoak sustatzeko. Bilboko Deustu auzoan ere jabetuta daude kirolak euskara sustatzeko izan dezakeen eraginaz, eta Berbaizua euskara elkarteak eta S.D. Deusto futbol taldeak 'Kirolean Hitza Hartuz' hitzarmena sinatu dute. Kirol guneetan gazteen partiden laburpenak eta partida osteko elkarrizketak jasotzen dituzte, adibidez, gazteei kirolaren bidez euskarazko ahozkotatasuna lantzeko aukera eskaintzeko.



Iñigo Gonzalez, Union Tuterako jokalaria eta Komunikazio arduraduna

*"Uste dut Erriberan euskara zabaltzeko bozgorailu ezin hobea dela futbola"*

## Zerk egiten du berezi Union Tuterana?

Kirol talde herrikoia, euskalduna eta feminista da gurea. Euskara da klubaren ardatz nagusietako bat, baina aniztasunari lotutako balio batzuek ere lotzen gaituzte. Oinarrietan jasota daukagu pausoak eman nahi ditugula euskara Tuteran -eta Erriberan- zabaltzeko eta normalizatzeko, eta ez zelaian, ez zelaitik kanpora ere, ez ditugula onartuko jarrera arrazistak, sexistak eta homofoboak. Kode etikoa ere badaukagu, jokalaria eta zuzendaritza-kide guztiok sinatzen duguna. Kode etikoa horrekin bat egiten ez duenak ez dauka lekua gure taldean. Gure taldean badira aspaldian futboleko ibili gabeak, bai eta

hasi berri direnak ere, baina etorri diren guztiak gure balioetan sinesten dutelako etorri dira.

## Noiz sortu zenuten taldea, eta erraza izan al zaizue orain arteko bidea?

Pandemia aurrean sortu genuen taldea, baina dezentez aurreragokoa da taldea sortzeko asmoa. Taberna batean sortu zitzaigun ideia. Bestelako talde bat sortu nahi genuen, balio batzuk zituen, eta hasi ginen jendearekin hitz egiten eta batu ginen proiektuan sinesten genuen batzuk. Uste genuen guk amesten dugun bestelako gizarte hori eraikitzeko eta Erriberan euskara zabaltzeko futbola bozgorailu ezin hobea zela, jende asko erakartzen

duelako, tartean kazetari eta argazkilariak ere bai. Bi talde ditugu: emakumezkoen areto futboleko talde bat eta gizonezkoen futbol taldea, baina harrobiko taldeak osatzea eta gure izaera beste kirol batzuetara zabaltzea nahiko genuke. Baliabidez eskas gabilta, baina.

### **Zenbatak dakizue euskara taldean? Zenbatak egiten duzue? Eta, zeintzuk pauso eman dituzue euskara txertatzeko zuen egunerokoan?**

Erriberan, Ikastolak eta AEK-k, adibidez, lan izugarria egin dute, baina hala ere, euskaraz egiten dugunak ez gara asko hemen. Gure taldean 22 lagunetik sei-zazpik dakigu euskaraz, eta emakumezkoen taldean hogeiren batek. Agurrak eta hitz solte batzuk euskaraz egiteko gai diren batzuk ere badauzkagu, baina hori da gure errealitatea. Hori bai, euskara jakin ez arren, euskararekiko jarrera positiboa dute denek eta egiten dute beren ahalegina. AEKrekin hitzarmen bat sinatu genuen eta badira jokalaria batzuk euskara ikasten hasi direnak. Aurten, beste pauso bat eman nahi dugu eta ekarri nahi ditugu AEK euskaltegikoak klubera astean behin-edo, denok izan dezagun harreman bat euskararekin. Paisaia linguistikoa euskalduntzeko ahaleginak ere ari gara egiten. Futboleko oinarrizko hitz batzuekin -jokoz kanpo, bakarrik, txartel horia...- ere egin ditugu kartelak, aldageletan-eta jartzeko. Era berean, gure partidak iragartzeko kartelak ere ele bietan jartzen ditugu kalean astero, eta hori beharbada Elgoibarren gauza normala da, baina hemen, Tuteran, ez. Futboleant, gure multzoko taldeen artean, ez dago eremu euskalduneko talderik, baina guk komunikazio guztiak ele bietan bidaltzen dizkiegu denei eta gertatu izan zaigu bakarren batetik euskaraz erantzutea. Ahalegin horrekin lortu dugu behintzat euskara ere badela ikus dezaten.

### **Zer harreman izan duzu zuk zeuk euskararekin?**

Sortzez Bilbokoa naiz, baina familia erdaldunekoa. 3 urterekin etorri ginen Tuterarabizitzera, baina ez ninduten ikastolan eskolatu, diru kontuengatik. 20 urterekin eman nuen izena Hizkuntza Akademian euskara ikasteko. Hemengo naiz, neska-laguna euskalduna da, eta gainera, inguruan banituen ikastolan ibilitakoak ere.

### **Zenbatetan entzun duzu 'Tuteran eta euskaraz'?**

Askotan, egia esan.

*"Kode etiko bat daukagu jokalaria eta zuzendaritzakide guztiok sinatzen duguna. Kode etiko horrekin bat egiten ez duenak ez dauka lekurik gure taldean"*

### **Nola hartu izan zaituztete beste zelaietan?**

Zelairen batean izan ditugu arazo batzuk jende batekin, baina oro har oso harrera ona izan dugu. Egia esan, uste nuen konplikatuagoa izango zitzaigula.

### **Futboleant ohikoak dira denetariko irainak eta jarrera oldarkorak...**

Bai, hori da. Ni beste talde batzuetan ibilitakoa naiz aurrez eta ikusi ditut salagarriak diren kontu asko. Ikusi dut nola jazartzen zuten emakume epaile bat eta ikusi dut zein natural hartzen zituzten aldageletan 'marikoia' eta burla-haizez esandako beste asko, eta ikusi dut nola egiten den barre norbaitek txiste sexista bat kontatzen duenean. Guk ez ditugu horrelako gauzak onartuko, ez aldagelan, ez zelaian. Kode etikoan jasota daukagu halakotan hasten den taldekidea taldetik kanporatua izango dela. Era berean, adostuta eta jakinarazita daukagu futbol zelaian horrelako jarrerarik ikusten badugu, partida utzi eta joan egingo garela, irainak gure jendearen kontrakoak izan ezta ere. Momentuan ez zaigu horrelakorik gertatu, baina erakutsi nahi dugu errespeturik gabe ez dagoela partidarik.

### **Futbolaria, komunikazio arduraduna, talde eragileko kidea, finantza taldekidea, nesken taldeko bigarren entrenatzaile izandakoa... Nola aurkeztu behar zaitugu?**

Hemen denetik egitea tokatzen zaigu, eta horrek denbora eta dirua eskatzen badu ere, betetzen gaitu honek.

### **Galdetu ez dizugun zerbait esan nahiko zenuke?**

Iruditzen zait gurea bezalako ekimenekin eta kiroletik urrutirago iristen garela batzuetan manifestazio jendetsu bat eginda baino eta iruditzen zait kirola bitarteko ona dela euskararen alde egiteko.



## Deustun, ahozkotasunean indarra

Deustuko Berbaizu euskara elkarteko bazkideek egindako gogoeta-prozesu batetik irten zen ideia da *Kirolean Hitza Hartuz* egitasmoa. Hausnarketa-prozesu hartatik atera zuten ondorio nagusia zen kirol-guneetan euskararen presentzia hutsaren hurrengo zela. Eskolak bakarrik ezin zituela umeak euskaldundu ere gauza jakina zuten. "Euskararen ezagutzaren ontzia betetzen ekarpen handia egin du eskolak, baina erabileran ez zen gora egiten, eta indarrak hor jartzea erabaki genuen", azaldu zuen Markel Barojak Berbaizu Euskara Elkarteko langile eta S.D. Deusto futbol taldeko kapitainak. Euskaraz egin ahal izateko aukerak sortu nahi zituzten -arnasguneak-, eta non lan egin nahi zuten ere zehaztu zuten. Bost kirol talde aukeratu zituzten (C.D. Deusto, Artizarra Deustualdeko emakumeen futbol taldea, Elorrieta, Deustuko arraun taldea eta Arangoitiko eskubaloi taldea) eta hasi zituzten bilerak zuzendaritza taldeekin. "Jarrera ona agertu zuten". Hamar urterako euskara planaren barruan, kirola estrategikotzat onartu zuten, "euskarak behar

dituen esperientzia positiboak" ematen dituelako, eta ekintza ezberdinak proposatu zituzten, tartean bost elkarte horietan euskara planak garatzeko proiektua. Ez zuten aurrera egin horrek, hein handi batean Udalak ez zuelako babestu.

Hala ere, Berbaizuk erabaki zuen proba egitea S.D. Deuston. Ahozkotasuna indartzea jarri zuten helburutzat, kadeteetatik beherako mailetan. Zuzendaritzakoei eskatu zieten jabetzeko euskaraz egiteko zegoen ohitura falta iraultzeko zein lagungarri izan zitekeen kirola; entrenatzaileei entrenamenduak hobetzeko bitartekoak eskaini zizkieten, gutxieneko euskara bat entrenamenduetan sartuta; gurasoentzako tailerrak antolatu zituzten eta kirolarietara partida ondorenetan elkarrizketak euskaraz grabatzen hasi ziren, gazteek kirolaren bidez euskarazko ahozkotasuna lantzeko aukera emateko. Gurasoak inplikatu zituzten horretan. Eta klubeko lehen taldekoen erreferentzialtasuna ere baliatu zuten Esperientzia pilotua izan zen, baina emaitzak ikusita, zabaltzeko moduko ekimena.



Iñaki Ugarteburu, Bergarako Kirol teknikaria

### *"Kirola herrigintza da"*

Zalantzarik ez du Iñaki Ugarteburu Bergarako kirol teknikariak, 2003tik 2011ra Gipuzkoako Foru Aldundiko Kiroletako zuzendari izandakoak:

"Kirolak giza-kohesiorako balio du, herria egiteko balio du. Harremanak hobetzen laguntzen digu, integratzen laguntzen die adibidez bazterketa arriskuan daudenei eta bakardadean bizi direnei, talde bateko kide sentitzeko aukera ematen du, bai eta harrotasuna ere talde horretako kide izateagatik. Eta kirolaren praktika onak bizitzarako lagungarri izango zaizkigun balioak ematen dizkigu". Kirola kontzeptua "anbigua" eta "aldakorra" dela zehaztu zuen Ugarteburuk, eta nork bere interpretazioa egingo duela, bere bizipenen arabera, baina Europako Kirol Ituna

aitpatuz esan zuen hiru helburu hauek betetzen dituen jardun fisikoari dei dakiokela kirola: Egoera fisikoa eta ongizate mentala mantentzea edo hobetzea, harreman sozialak osatzea edo maila guztietan lehiaketan emaitzak lortzea.

Eta hain justu ere, hiru puntu horien inguruan ardaztu zuen hitzaldia. Kirolak lana sortzen duela esan zuen, gozamina eman eta bizi-kalitatea hobetzen laguntzen duela eta duen garrantzirako erakundeen partetik ez duela behar beste jasotzen. "Kirolak behar ditu baliabide gehiago. Eta guk -erakundeetakoak-, jakin behar dugu herritarrei lana errazteko gaudela. Aprobetxatu behar dugu jendea prest dagoela kirolaren eta herriaren alde egiteko, eta eskerrak emateaz gain, baliabideak, laguntzak, formazioa... eman behar diegu, gero eta zailagoa delako ezer antolatzea".

## Eliteko kirolarien plaza



Eliteko lau kirolari eta maila bereko irratiesatari bat gonbidatu zituzten antolatzaileek *Euskara ala ezkara kirolean?* jardunaldira, kirolean mailarik gorenean dabiltzanek zer eta nola bizi duten ezagutzeko. Iraia Iparragirre Realeko kapitaina (Lasarte-Oria, 1995), Odei Jainaga xabalina jaurtitzaille olinpikoa (Eibar, 1997), Jokin Altuna Aspeko pilotaria (Amezketeta, 1996) eta June Loidi (Elgoibar, 2000) Super Amara

Bera Bera eskubaloi taldeko jokalariaik bildu zituzten [Xabi Prieto Realeko jokalaria izandakoak ez zuen etortzerik izan] eta Joxe Mari Apaolaza kazetari eta Euskadi Irratiko *Kirol lege*z irratsaioko gidaria jarri zuten tertulia dinamizatzen. Eliteko kirolarien egunerokoaren mila ertzi buruz galdetu zien Apaolazak, baita euskarari buruz ere, eta konplizitate eta grazia handiz erantzun zieten kirolariak.

## Ondo egindako lanari, errekonozimendua



Elgoibarren kirola sustatzeko lan boluntarioan ari diren sei emakumeri esker ona azaldu zieten antolatzaileek *Euskara ala ezkara kirolean?* jardunaldiaren barruan. 11 Ikustekok grabatu eta editatutako *Biba zuek!* bideoa proiektatu zuten lehenengo eta bideoan agertzen diren sei emakumeak igoarazi zituzten gero oholtzara: Virginia Santamarta (Morkaiko Mendizale Elkarte), Marta Diez (C.D. Elgoibar),

Marga Zapata (Urnobitza Motokluba), Mertxe Ariznabarreta (Lagunak pilota taldea), Pili Pedrosa (Sanlo eskubaloi taldea) eta Mertxe Martinez (Mintxeta Atletismo Taldea). Kirolari emandakoa kirolek jasotakoa adinakoa izan dela nabarmendu zuten haiek, eta esker on hitzak izan zituzten antolatzaileentzat, bai eta eguneroko lanean klubetan lankide eta lagun dituzten guztientzat ere.

## Dultzaina doinuek hartuko dituzte domekan Elgoibarko kaleak

**E**lgoibarko dultzaineroen taldeak 50 urte bete ditu aurten, eta dagoeneko ospakizunak hasi badituzte ere, domekan izango dute egun handia: Dultzaina Eguna. Goizean goizetik dultzaina doinuek hartuko dituzte herriko kaleak, eta Elgoibarko dultzaineroak ez dira bakarrik egongo: Arrasateko, Bilboko, Guardiako, Eltziegoko, Tuterako, Iruñeko, Artaxoako, Zaragozako eta Baigorriko dultzaineroak izango dituzte lagun Txomin Mujikak, Ricardo Gorritik eta Aitor Novak. Dianarekin hasiko dute eguna 10:00etan, eta herriko txoko guztiak dultzaina doinuz jantziko dituzte. Segidan, Udal Musika Bandak eta Iruñeko dultzaineroek kalejira egingo dute, eta 12:30ean kontzertu berezia emango dute dultzainero taldeek Udal Musika Bandarekin, Kalegoen plazan.



### Dultzaineroen urtea

2022a Elgoibarko dultzainero taldearen urtea izaten ari da. 50 urte pasatu dira 1972ko Natibitate egunean estreinakoz dultzaina doinuek Elgoibarko kaleetan entzun zirenetik, eta urteurren hori ospatzeko hainbat ekitaldi egin dituzte urte osoan zehar. Altzolatarren Dorretxea filatelia elkarteak dultzainero taldea omendu zuen urtarrilean, eta sanbartolomeetan jaiei hasiera eman zien txupina bota zuten.

### Gurasoentzako euskara eskoletan izena emateko epea zabalik dago

Elgoibarko Udalaren Euskara Sailak, Udal Euskaltegiak eta AEK euskaltegiak gurasoentzako euskara ikastaroak antolatu dituzte 2022-23. ikasturterako, herriko ikastetxeekin elkarlanean. Euskara ikasteko aukera ezberdinak eskainiko dituzte: euskara ikasten hasteko, hobeto edo errazago berba egiteko, edota hobeto idazten eta irakurtzen ikasteko. Udalak bekak emango ditu: 0-12 urte bitarteko umeak dituzten gurasoek matrikula erdia ordainduko dute, eta bekaren bitartez, ikastaro amaieran, baldintza batzuk betez gero, ordaindutako matrikularen erdia jasoko dute.

Antolatzaileek esan dutenez ikastaro pertsonalizatuak izango dira, eta ordutegia gurasoen beharren arabera moldatzeko aukera ere egongo da.

Izena emateko epea irailaren 26ra arte izango da. Informazio gehiagorako honako telefonoetara deitu daiteke: 943 742 731 (Udal Euskaltegia) edo 607 601 423 (AEK).

### Javier Campanoren argazki erakusketa antolatu du Ongarrik



Javier Campano argazkilaria madrildarraren lanak jarriko ditu ikusgai Ongarri argazkilaria taldeak Kultur Etxean, gaurtik hilaren 30era arte. 70eko hamarkadan piztu zitzaion argazkilaritzarako interesa Campanori, eta autodidakta izan da bere lanbidean. Espainiako argazkigintza berritzea zuen helburu eta hasieratik beste artista askorekin elkarlanean aritu da. Bere laborategi propioa izan du hasieratik, eta zuri-beltzean lan egiten hasi zen. 2010ean sistema analogikoa alboratu eta digitalean lan egiten hasi zen, koloretan. Kaleko argazkilaria moduan definitzen du bere burua, eta bere lanetan hiriak eta barrunbe urbanoak dira nagusi. 18:30etik 20:30era bisitatu daiteke erakusketa, astelehenetik zapatara.



## Indarberrituta datoz San Migel jaiak

**B**i urteko etenaren ostean indarberrituta eta berrikuntzekin datoz aurten Aiastiako San Migel jaiak. Irailaren 29an da San Migel Eguna, eta horren harira, datorren astebururako antolatu dituzte auzoko jaiak. Zapatuan hasiko dira, eta besteak beste umeentzako ekitaldiak izango dira egun horretan: umeentzako jolasak, bazkaria eta puzgarriak. Haritz dantza taldearen erakustaldia, eta bolo txapelketa ere ez dira faltako egun horretan, eta gauerako erromeria antolatu dute, Fan&Go taldearekin. Domekan berriz, artzai txakur txapelketa eta idi-demak egingo dituzte. San Migel Egunean amaituko dira auzoko jaiak, eta egun horretan meza, trikitalariak eta pilota partidak egongo dira.



### Autobus zerbitzua zapatuan

Aurtengo berrikuntzen artean autobus zerbitzua nabarmendu behar da. Zapatuan Aiastiara igotzeko autobusa jarriko dute, 19:00etatik goizaldeko bostak arte. Txarridunako errotondatik irtengo da autobusa, eta etenik gabe arituko da lanean ordu tarte horretan.

Antolatzaileek, bestalde, umeen bazkaritarako zein zapatuko afaritarako izena aurrez emateko eskatu dute. Interesatuak telefono zenbaki honetara deitu behar dute, irailaren 22rako: 666 269 636 (Elorri).

### Lila emakumeen etxearen urteurrena ospatuko dute eguenean

Iazko irailean zabaldu zuten atea Lila Emakumeen Etxeak, eta urteurren hori ospatzeko jaia antolatu dute eguenerako. Lilan bertan egingo dute ospakizuna, eta ekitaldi irekia izango da. 18:30ean hasiko da, Lila sariaren banaketarekin. Emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasuna sustatzen lagundu duen elkarte zein norbanakoei errekonozimendua egiteko sortu ditu Udalak Lila Sariak, eta eguenean egingo dute lehen edizioaren sari banaketa. Lilaren Mahaiko hiru kidek, Berdintasun Saileko teknikariak, Berdintasun Saileko arduradunak eta alkateak osatu dute epaimahaia eta beraiek erabakiko dute nor den



aurtengo irabazlea. Irabazleak oroigarri bat eta 500 euroko saria jasoko ditu.

Sari banaketaren ostean Beatriz Egizabal eta Getari Etxegarairen bakarriketak izango dira, eta azkenik, Ane Zabaleta eta Deñe Garciairen kontzertua, ekitaldia ixteko. Amaieran mokadutxoa egingo dute.

### 'Tanta Urdinak' liburua aurkeztuko du Marea Urdina Elkarteak gaur, Elgoibarren

Aniztasun funtzionala duten pertsonen inklusioa lortzea helburu duen Marea Urdina elkarteak **Tanta Urdinak** izeneko ipuina sortu du, eta Elgoibarren aurkeztuko dute liburua, gaur. Aita Agirre Kulturgunean izango da aurkezpena, 16:00etan, eta herritar guztiak gonbidatu dituzte aurkezpenera. Tanta Urdinak elkarteak eskerrak eman dizkiote Elgoibarko

Ideko enpresari, euren laguntzari esker lortu dutelako proiektu hau gauzatzea.

Marea Urdina kolektiboa 2017. urte erdialdera sortu zuten autismoa dutenen senideek, eta 2019an sortu zuten elkarte. Beraien helburua inklusioa lortzea da. Elkarteko kideek nabarmendu dute gizartearen %5ek ezgaitasunen bat dutela, eta konkretuki %1ek autismoa dutela.

## Sotoko Hotsak eta Gararock musika jaialdiek bat egingo dute datorren astean

**D**atorren astean musika izango da protagonista Elgoibarren eta Mendaron. Sinuösek antolatuta, Sotoko Hotsak musika jaialdia izango da hilaren 23an (barikua) Elgoibarren, eta aurten, gainera, berrikuntzekin dator: Rukula taldearen kontzertuak hasiko du jaialdia, 20:00etan, sototik kanpora. Kultur Etxe atzeko parkean izango da kontzertua, Udaltzaingoaren parean, doan. Euria eginez gero Aita Agirreko arkupeetan izango da. 23:00etan, bestalde, Elle Belga taldeak kontzertua emango du, ohi bezala, sotoan. Sarrerak 5 euro balioko ditu.

Hurrengo egunean, hilaren 24an, Gararock jaialdia egingo dute Mendaron: Las Furias, Inoren ero ni, Vülk eta Lie Detectors izango dira aurten talde gonbidatuak, eta Maraca Diablo herriko taldeak osatuko du kartela. Horrez gain, Nerea Ariznabarreta ipuin kontalariaren eta Mariano Hurtado musikagilearen 'Kontukontzertua' antzerki musikatua ere izango da.



Elle Belga



Maraca Diablo (🎧 Alessandra de Schmidt)

---

### Elgoibarko industria Euskaraldiari begira

Gosari baten bueltan bildu ziren asteazkenean Elgoibarko hamar enpresa industrialeko ordezkariak eta Elgoibarko Euskaraldia Taldeko eragileak. IMH Campusen bildu ziren eta ordubeteko gosari-bilera izan zen. Elgoibarko industria sektorean euskarak duen tokiaren gainean jardun zuten batez ere. Euskarak haien enpresei zer eman dien ere azaldu zuten pare bat lagunek, eta gosaria amaitzeko, Euskaraldia ariketaren gainean jardun zuten. Urriaren 14an amaituko da enpresek eta entitateek izena emateko epea, eta informazioa edota laguntza jaso nahi dutenek,



honako bi aukera hauek dituzte: 943 741 626 / [euskaraldia@elgoibar.eus](mailto:euskaraldia@elgoibar.eus).

---

### UEUren ikastaroetarako dirulaguntzak emango ditu Elgoibarko Udalak

Elgoibarko Udalak dirulaguntzak emango ditu Udako Euskal Unibertsitateak udazkenean emango dituen ikastaroetan parte hartzeko. Eibarren eta Iruñean izango dira saioak, on-line edo aurrez-aurre. Ikastaroetarako buruzko informazio guztia [www.ueu.eus](http://www.ueu.eus) webgunean aurkituko duzue. Elgoibarko Udalak

matrikularen erdia ordainduko die Elgoibarren erroldatuta dauden herritarrei, gehienez ere 200 euroko mugarekin. Dirulaguntzari buruzko informazio gehiago lortu nahi dutenek Elgoibarko Udalaren Euskara Sailera jo beharko dute (943 744 366 / [euskara@elgoibar.eus](mailto:euskara@elgoibar.eus)). Eskaera egiteko epea urriaren 28an amaituko da.

## Leire Garatek hirugarren Kontxako Bandera irabazi du Oriorekin

**K**ontxako Bandera eta Euskotren Liga irabazi ditu Leire Garate arraunlari elgoibartarrak Oriorekin, arraun denboraldiko bi garaipen estimatuenak. Aurtengoa Kontxan eskuratu duen hirugarren bandera izan den arren, aurreko urteetan lortutako garaipenak baino gehiago baloratu duela nabarmendu du, denboraldia hasi aurretik zituen zalantzegatik bereziki. "Zalantza asko eduki nituen denboraldi hasieran. Gainera, Xanti Zabaleta entrenatzaileak lagatzea erabaki zuen eta berarekin batera bederatzirak arraunlarik ere laga zuten taldea. Ez nuen oso ondo ezagutzen Patxi Frances entrenatzaile berria, eta buelta asko eman eta gero, bere lan egiteko erarekiko kuriositateak bultzatuta, taldean jarraitzea erabaki nuen", azaldu du. Euskotren Ligako lehen bi jardunaldietan ondo aritu ez baziren arren, handik aurrerakoa izugarritzko denboraldia izan dela dio. "Uretan egin genituen lehen entrenamenduetan kadeteak ematen genuen; bakoitzak bere arraunkera zeukan eta ez genuen arraunlariak ematen, palada bakar bat ez genuen batera ematen. Hasierako estropadetan justu xamar ibili



ginen, baina poliki-poliki hobetzea lortu genuen, eta ligako hamalau estropadatik hamabi irabaztea lortu dugu". Aurten zaleen gertutasuna bete-bete sentitzeko aukera izan dute arraunlariek berriro ere, eta Orio moduko arraun herri batean funtsezkoa da hori. "Ikustekoak izan ziren bai ligako garaipeneko harrera eta baita Kontxakoa ere; plaza guztia horiz jantzita zegoen, oso hunkigarriak izan ziren biak. Benitoren kantak dioen bezela; 'ez zara inoiz bakarrik joango' hori da estropadaz estropada sentitzen duguna". (Elkarrizketa *barren.eus* webgunean)

## Egañatarrak nagusi Debabarreneko Ehiza Xehe Txapelketan

Egañatarren sagak ehizarako duen trebezia agerian gelditu zen beste behin ere Debabarreneko Ehiza Xehe Txapelketan. Arabako Zanbrana herrian jokatu zuten, aurreko domekan. Senior gizonetzkoen mailan Arkaitz Egañak irabazi zuen, 9 eper ehizatuta. Jose Luis Ferreira eibartarra sailkatu zen bigarren, 6 eper ehizatuta, eta David Conde elgoibartarrak egin zuen hirugarren, bost eperrekin. Emakumezkoetan Leire Egaña gailendu zen, bi eper ehizatuta. Eta, beteranoetan egañatarren sagako nagusia, Arkaitz eta Leire neba-arreben aita, izan zen irabazlea. Jose Mari Egañak ehizatu zituen bi eperrei esker lortu zuen lehen postua beteranoetan. Jose Luis Gisasola sailkatu zen bigarren postuan eta Mauro Gonzalez



mendaroarra hirugarrengoa. Azkenik, junior mailan Urko Garcia izan zen onena, lau eper ehizatuta. Aipaturiko ehiztari guztiek lortu dute Gipuzkoako txapelketarako sailkatzea. Urriaren 2an jokatu dute "El Castillo" ehiza barrutian.





## Anaitasunako taldeek irabazi dute Gojko Vucinic eskubaloi txapelketa, bigarren urtez jarraian

👤 Roberto Sanchez

300dik gora neska-mutilek hartu zuten parte Gojko Vucinic Elgoibar Hiria eskubaloi txapelketaren laugarren edizioan. Kadete mailako Gipuzkoako eta Nafarroako bederatzik kirol taldetako hamasei eskubaloi talde aritu ziren lehian, hiru egunetan. Olaizaga kiroldegiko kantxan lehiatu ziren nesken taldeak, eta IMHkoan mutilenak. Emaiztezi dagokionez, Anaitasuna talde nafarreko

neska zein mutilen taldeek eta Zumaiako Pulpo taldekoekin eginiko lana nabarmendu behar da, bi kirol talde horietako lau taldeak ailegatu baitziren bi finalerara. Anaitasunako nesken taldeak Zumaiako Pulpo eskubaloi taldearen aurka jokatu zuen finala domeka eguerdian, Olaizaga kiroldegian, eta 9-24ko emaitzarekin gailendu ziren iruñarrak. Mutilen finalean 15-19 irabazi zion Anaitasunak Pulpori.

### Mintxetako tenis pista berritu dute



Aurrez IMHko tenis pistarekin egin zuten moduan, Mintxetako tenis pista ere berritu du Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak. Tenis pistako lurzorua konpondu dute, eta pintaketa eta errotulatzeko lanak ere egin dituzte, pistari itxura berria emanez. Udal Kirol Patronatutik gogora ekarri dute abonatuak libreki eta doan erabil ditzaketela Mintxetako tenis eta padel pistak.

### Mintxeta Atletismo Taldera batzeko izen-ematea zabalik

Mintxeta Atletismo Taldera batu nahi dutenek orain dute aukera, 2022-2023 denboraldia hastear baita. Irailaren 19tik ekainera bitartean izango da atletismo denboraldia, eta Mintxeta taldeko kide izan nahi dutenek [mintxeta@mintxeta.com](mailto:mintxeta@mintxeta.com) helbidera idatzi behar dute edo 630 291 758 telefono zenbakira deitu, eta Danigatik galdetu. Elgoibar, Mendaro, Soralueze, Deba eta Mutrikuko umeei zuzendutako deialdia dela nabarmendu dute. Zortzi urtetik (LH4) hasi eta senior-promesa mailara arteko atletek dihardute Mintxeta Atletismo Taldean. Atletismo taldekoen entrenamenduak astelehenetan eta eguaztenetan izango dira, 18:30etik 20:00etara, Mintxetan.



Sanloko bi taldeak podiumera igotzeko atarian gelditu ziren, biak laugarren postuan sailkatu baitziren. Neskek 8-16 galdu zuten hirugarren postua erabakitzeko borrokan, Malkaitz taldearen aurka. Mutilek 10-30 galdu zuten Zarautzen aurka podiumeko hirugarren koskara nor igoko zen

erabaki zuen neurketa. Txapelketako jokalar eta atezain onenak ere saritu zituzten. Oihane Beperet (Anaitasuna) eta Ander Moriano (Pulpo) aukeratu zituzten jokalar onenak eta Ange Aizpuruarentzat (Pulpo) eta Julen Orbegozorentzat (Zarautz) izan ziren atezain onentzako sariak.

Billabasoren idiek irabazi dute idi kintopekoen txapelketa



Lau jardunalditan jokatu dute Idi kintopekoen Elgoibarko zortzigarren txapelketa, Sigmako probalekuan. Hamalau idi-pare aritu dira lehian eta Maruriko Billabasoren idi-pareak egin zuen guztietan markarik onena, irailaren 3an jokaturako jardunaldian. 1.680 kiloko harriarekin 57 plaza, hiru zinta eta 4,54 metro egin zituzten orduerdiko saioan. Irabazleak 1.300 euroko saria, manta eta garaikurrak jaso zituen. Zallako Zornotza anaien idi-pareak lortu zuen bigarren markarik onena (52 plaza) eta Ainhoa Gabirondoren idi-pareak hirugarrena (51 plaza, bi zinta eta 4,88 metro).

**LANA**

**Eskaerak**

Adinekoak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo sukaldari laguntzaile moduan aritzeko prest nago. **631 357 711**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka. Esperientzia handia. **671 677 160**

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, etxeetan zein enpresetan. Esperientzia handia. **622 023 451**

Adinekoak zaintzeko prest nago, goizez. Zaintzako ikastaroa amaitzen ari naiz, eta paperak legez ditut. **643 071 900**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat. **643 278 344**

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. **652 020 464**

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. **642 578 943**

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. **642 577 823**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Beharrezkoak diren tituluak ditut eta esperientzia daukat. Orduka, etxeko langile moduan edo gauez lan egingo nuke. **697 760 662**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Paperak legez ditut. **624 131 378**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. **632 915 336**

Neska euskalduna, umeak zaintzeko prest. **695 769 300**

Neska euskalduna, arratsaldetan umeak zaintzeko prest. **671 111 737**

**Eskaintzak**

Elgoibarko mekanizazio-enpresak langilea behar du Danobat RP1200 artezteko makinan (rektifikadora) lan egiteko. Ezinbestekoa da barnealdean eta kanpoaldean mekanizazioan esperientzia izatea. Lan-kontratu mugagabea eskaintzen da. E-posta: [angel@swisslan.es](mailto:angel@swisslan.es)

DBH3-ko ikasle bati eskola partikularrak euskaraz emateko prest legokeen lagun baten bila ari gara. **636 235 219**

DBH2-ko ikasle bati klase partikularrak emateko pertsona behar da. **635 750 362**

**OSPAKIZUNAK**

1952an jaiotakoan kinto ospakizuna urriaren 8an. 13:00etan bilduko dira Kalegoen plazan talde argazkia ateratzeko. Ondoren, luntxa, Ibai Ondo erretegian. 14:30ean bazkaria, Sigma jatetxean. 60 euro ordaindu behar dira Laboral Kutxan, irailaren 30erako: ES44 3035 0007 2800 7114 2555



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Recursos Humanos



**ROSA Mª PINTADO**


*Etxaldean Administrazioaroko-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*

**660 969 679**  
[rosapf@telefonica.net](mailto:rosapf@telefonica.net)

**Etxejabeen azkeneko batzarrean, etxe bakoitzean ur beroaren kontagailuak jartzea adostu dugu, kontsumo individualak neurtzeko. Jakin nahiko nuke kontagailu horiek jartzearen kostua nola ordaindu behar dugun eta ados ez daudenak behartu ditzakegun ordaintzera.**

Jabetza Horizontaleko legeak ematen duen aukera baliatuta, akordio horrekin lortu nahi dena ur kontsumoaren gastua individualizatzea baldin bada, ez litzateke arrazoizkoa aurrez egin beharreko instalazio-kostuak ez individualizatzea. Etxebizitza bakoitzak bere kontagailua ordaindu behar du beraz, nahiz eta kontagailua eta haren ezaugarriak jabekideen batzarrak adostutakoarekin bat etorri behar diren beti. Izan ere, kontagailu guztiak berdinak izan behar dira, jasoko diren datuak egokiak izan daitezzen. Arrazoi beragatik, etxejabe bakoitzak bere gain hartu beharko litzuzke kontagailua konpontzeko gastuak ere.

**AHOLKUA: Kontagailuak jartzeko gehiengoz hartutako erabakiak etxejabe guztiei eragiten die. Hori bai, kontagailuak jartzea norbanako bakoitzaren borondatearen esku gelditu ez dadin, komunitateak hartuko du lan horiek egingo dituen kontratatzeko ardura eta denen artean ordainduko dituzte gero lan horiek.**



**AHOLKULARI KOLABORATZAILEA**  
San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo 688 634 044 bidalita.




Zorionak, amama **Maria Luisa!** 92 urte, eta segi aurrera... tralara, tralara... Muxu handi bat!



Zorionak, **Jule,** atzo urtetxo bat egin zenuelako. Segi horrelako polit etia sorgintxo izaten, gure printzesa.



Zorionak, **Ekain!** Ostegunean 9 urte bete zenituen eta zein ondo pasa genuen! Segi horrela, txapel dun!



Zorionak-**parabens Andoni eta Juliana!** Ederki ospatuko dugu, denok batera! Kuadrillakoen partez.



Zorionak, **Patxi eta Xole!** Gaur 50 urte Itziarren ezkondu zinetela. Primeran ospatu genituen zuen urrezko ezteiak, etxeko denok elkarrekin. Egun oso polita izan zen! Jarrai ezazuela elkarren ondoan urte askoan. Etxekoan partez.



Zorionak, **Haizea!** Abuztuaren 20an 9 urte bete zenituen eta zein ondo pasatu genuen! Muxu bat familiako guztion partez.



Zorionak, **Sara,** igandean 5 urte beteko dituzulako. Familiakoen eta bereziki, Eleneren partez.

Erretratu bakarrekogurra: 4,50€.  
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO  
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarrekogurra: 3,50€.  
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

**Niretzat**  
**Hiretzat**  
**Herentzat**  
**Halentzat**  
**Zuentzat**  
**Guretzat**  
**Zuretzat**

UDAL EUSKALTEGIAK GUZTIONTZAT PUBLIKOAK.  
2023-2023  
**MATRIKULA EPEA ZABALIK**  
Plazo de matriculación abierto.

### MATRIKULA ZABALIK

**Matrikulaldia:**  
irailaren 7tik 23ra

### IKASTAROAK

Aurrez aurrekoak: 2, 3 edo 4 egun asteen, mailaren arabera.  
Autoikaskuntza Internet bidez.  
Euskara ulertu eta euskaraz bizitzeko ikastaroak.  
Mailak: A1, A2, B1, B2, C1, C2.  
Azterketa prestatzeko ikastaroak: HABEren titulu ofizialak, Administrazioa, Osakidetza.

16 urtetik gorakoentzat.  
Langabetu, jubilatuz, ikasle eta gurasoek **MATRIKULA ERDIA**.  
Ikastaro amaieran **BEKAK** denentzat. (Baldintzak betez gero).  
Informa zaitetz Udal Euskaltegian!

### MATRIKULA ORDUTEGIA

**ELGOIBAR:** 09:00 - 13:00 / 15:30 - 19:30

**DEBABA UDAL EUSKALTEGIA**  
ELGOIBAR: Aita Agirre 3, 3.a - 943 742 731

**16 BARIKUA**

**16:00** Aurkezpena: 'Tanta urdinak' liburua aurkeztuko du Marea Urdina elkarteak. Aita Agirre kulturgunean.

**18:30** Argazki erakusketa. Javier Campano argazkilaria ren lanak jarriko dituzte ikusgai Kultur Etxean. Ongarri Argazki Taldeak antolatuta.

**17 ZAPATUA**

**8:30** Aire libreko margo lehiaketa, Mendaron. 14:00etarako aurkeztu beharko dira lanak eta 14:30ean egingo dute sari banaketa.

**18 DOMEKA**

**11:00** Omenaldia: 36ko Gerran Elgoibarko frontean hildako soldaduei omenaldia. Aiastiako frontoian eta Zirardamendin.

**Dultzaina Eguna**

**10:00** Diana. Arrasate, Bilbo, Guardia, Eltziego, Tutera, Artaxoa, Zaragoza, Baigorri, Elgoibar eta Iruñeko dultzaineroekin.

**11:15** Elgoibarko Udala Musika Bandaren eta Iruñeko dultzaineroen kalejira.

**12:30** Elgoibarko Udala Musika Bandaren eta dultzainero taldeen kontzertua. Kalegoen plazan.

**Jarraian**, kale giroa dultzainero taldeekin.

**19 ASTELEHENA**

**12:00** Pentsiodunen elkarretaratzea Kalegoen plazan. Gaurgeroak antolatuta.

**21 EGUAZTENA**

**17:00** Gaztelekuaren irekiera. **18:30** Hitzaldia: Jorge Arevalo Lanbide Heziketakoa sailburuordea. Aita Agirreko areto nagusian.

**22 EGUENA**

**15:30** Hitzaldia: 'Dementziak ezagutzen dituzu?'. Alzheimerren Nazioarteko Egunaren harira. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**18:30** Lilaren I. urteurreneko jaia. Lilan.

### Zinea

#### Iñaki Agirre zinemaldia

'Mi mejor amigo'  
16 barikua: 19:00

'Mass'  
17 zapatua:  
19:00 / 22:15  
18 domeka: 19:00  
19 astelehena: 21:00

'París, distrito 13'  
22 eguena: 21:00  
23 barikua: 19:00

**Botika ordutegiak:** 09:00-13:00 7 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

**IRAILA**

16 BARIKUA  
17 ZAPATUA  
18 DOMEKA  
19 ASTELEHENA  
20 MARTITZENA  
21 EGUAZTENA  
22 GUENA  
23 BARIKUA

**Egunez**

■ Ibañez  
Garitaonandia  
Garitaonandia  
Arriola  
■ Fernandez  
Yudego  
■ Oruesagasti  
Barrenetxea

**Iluntzean**

Yudego  
Garitaonandia  
Garitaonandia  
Arriola  
Garitaonandia  
Yudego  
Arriola  
Barrenetxea

■ Fernandez:  
Herriko enparantza,4  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

■ Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

■ Oruesagasti:  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00  
Esther Mendinueta Berastegui - Urkizu pasealekua, 6 (Eibar) - 943 820 106



**Denboraldei berriko manta,  
edredoi, nordiko eta  
neguko ohe-maındireak  
dendan!**

**Bisita gaitzazu!**



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



- ✓ IDAZMAKINEN SALMENTA  
ETA KONPONKETA
- ✓ MULTIKOPISTAK
- ✓ FOTOKOPIAGAILUAK
- ✓ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ✓ MARRAZKETA MATERIALA
- ✓ INFORMATIKA
- ✓ FAXA

**MEKANOSA**  
Errosario, 27-Elgoibar  
943 740 284

## EXPRESS ESKAINTZAK!

### BOSCH HRA574BSO LABEA



- Pirolitikoa
- Lurrun erantsiaren funtzioa
- 71 litro
- Altzairu herdoilgaitza
- Botoi ezkutagarriak



**549 €**

**MILARBIRE**

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

## ESKERRIK ASKO

*la lau hamarkada eman ditugu elkarrekin,  
tindu, solasaldi, guraize, isilune,  
orrazi eta konfidentzia artean,  
zuetako asko lagun min bihurtzerarte.*

*Heldu zaigu ordua erreleboa  
emateko eta bide berri bati ekiteko.*

*Barkatu, barkatzekoak baleude,  
eta ESKERRIK ASKO urte guzti hauetan  
agertutako fideltasun eta konplizitateagatik.*

**fadek**



## Udal Ludotekako eta Gaztelekuko zerbitzuak laster martxan

[www.elgoibar.eus](http://www.elgoibar.eus)

### Udal Ludoteka

Irailaren 19tik aurrera zabalik.  
Astehenetik ostiralera, 16:30etik 19:30era.

Gabriel Kurutzelaegi, 6 - 20870 ELGOIBAR  
943 748 883

[ludoteka@elgoibar.org](mailto:ludoteka@elgoibar.org)  
[@elgoibarko\\_ludoteka](https://www.instagram.com/elgoibarko_ludoteka)



### Udal Gaztelekua

Irailaren 21etik aurrera zabalik.  
Asteazken, ostegun eta igandeetan, 17:00etatik 20:00etara.  
Ostiral eta larunbatetan, 17:00etatik 21:00etara.

Gabriel Kurutzelaegi, 4 - 20870 ELGOIBAR  
943 743 228

[gaztelekua@elgoibar.org](mailto:gaztelekua@elgoibar.org)  
[@elgoibarkogaztelekua](https://www.instagram.com/elgoibarkogaztelekua)







**A**maia Mujikak ekarri du aste honetako erretratu zaharra. 1972koa da, eta ezkontza egun batean aterata dago. Argazkian ageri direnak Maria Astigarraga (†) eta bere seme-alabak dira. Maria Asun da alaba eta Angel eta Niko Etxabe seme bikiak. Amaia Mujikak ez du zehaztu nahi izan bakoitza nor den, eta hori herritarren esku utzi du, jolas modura. Askok ez dituzue agian ezagutuko, baina ezagutzen dituzuenok egin dezakezue biki bakoitza identifikatzeko saiakera.




V.URTEURRENA

**Isaac Ramos Lopez**

2017ko irailaren 12an hil zen, 66 urte zituela.

**Joan zinen gu hemen utzita,  
baina, jakin ezazu, inoiz ez zaitugula ahaztuko.**






VIII. URTEURRENA

### *Juanito Loiola Bergaretxe*

2014ko irailaren 14an hil zen, 69 urte zituela.

***Beti egongo zara gure bihotzean. Asko maite zaitugu.***

Etxeko sendiak



X. URTEURRENA

### *Jose Mari Aramberri Urrutia*

2012ko irailaren 13an hil zen. Haren oroimenez X. urteurreneko meza izango da, domekan, irailaren 18an, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi, alde zuretik eskerrak.



XIV. URTEURRENA

### *Nora Rey Nogales*

1998/10/18/ - 2008/08/11

***14 urte, zu gabe.***

***Inor ez da hiltzen, ahazten ez badugu.***

Ama eta Aita



# ETXEBERRIA

## EHORZKETA-BEILATOKIA

**943 741 327 (24 orduz)**

**635 756 295**

**629 635 203**

Santa Klara, 16 - Elgoibar  
[info@funerariaetxeberrria.com](mailto:info@funerariaetxeberrria.com)  
[www.funerariaetxeberrria.com](http://www.funerariaetxeberrria.com)

**Kutxak, trasladoak eta koroak.  
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.  
Erietxe zentruetan zerbitzuak.**



10%



**EAJ**  
**PNV**  
ELGOIBAR

# Lanbide heziketa

JORGE AREVALO  
Lanbide Heziketako sailburuordea

ELGOIBAR  
Kultur etxeke hitzaldi gelan  
Irailaren 21ean, 18:30ean

## Ziardamendiko ekitaldira gonbitea

Irailaren 18an, igandea, 11:00etan Aiastia auzoan

## Alderdi Eguna 2022- EAJ/PNV

Irailaren 25ean, igandea, Forondan.  
Autobusean izena emateko: 688 825 183.  
Autobusa hartzeko: Kalegoen plazan 9:30ean  
Etortzeko: 14:30ean, 18:30ean eta 21:30ean.